



# IRALE

## 2024ko udarako eta 2024-2025 Ikasturterako DEIALDIAK

### 2024-2025 IRALE programa

IRALEren 2024-2025ko eskaintzaren laburpena duzu hau. Informazioa osatu eta zehazteko, jo ezazu IRALEk argitaratuko dituen bi agindu hauetara:

- ***2024ko udarako eta 2024-2025 ikasturterako IRALE programan parte hartzeko Agindua*** (EHAA, 2024/05/10)
- ***IRALE programak 2024-2025 ikasturtean eskainiko dituen irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroen berri eman (H eta I ikastaroak) eta ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzen duen Agindua*** (EHAA, 2024/05/13)

Interneteko helbide honetan ere guztion eskura izango dituzue agindu horiek:

[www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara](http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara)



## NORENTZAT DIRA DEIALDI HAUEK

### a) irakastordu barneko ikastaroak

- Herri-ikastetxeetako irakasle funtzionario, irakasle finko eta irakasle bitartekoentzat.
- Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasle finkoentzat.
- Herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finko eta lan-legepeko aldi baterako irakasle eta hezitzaileentzat.
- Hezkuntza Ikuskaritzako eta irakaskuntzaren laguntza-zerbitzuetako langileentzat.

### b) irakastorduz kanpoko ikastaroak

- Herri-ikastetxeetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasle guztientzat: irakasle funtzionario, bitarteko, finko eta ez-finkoentzat.
- Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile guztientzat: bai finkoentzat eta bai aldi batekoentzat.
- C1era arteko ikastaroetan, Haurreskolak Patzuergoko irakasleentzat eta hezitzaile finkoentzat eta ez-finkoentzat ere bai.

## ESKABIDEAK NOIZ-NOLA BETE

### -Irakastordu barneko ikastaroak (R ikastaroak; U ikastaroak; 3000/4000/5000 ikastaroak) eta irakastorduz kanpoko behe-mailako ikastaroak (AU, A, EU eta E):

Noiz: **2024/05/11tik 2024/05/31ra** (bi egunak barne)

Nola: *online*. Horretarako, jo helbide honetara:

[www.hezigunea.euskadi.eus](http://www.hezigunea.euskadi.eus) > izapideak langileen sailarekin > irale ikastaroak

### -Irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroak (H eta I):

Noiz: **2024/05/14tik 2024/06/03ra** (bi egunak barne)

Nola: *online*. Eskabideak ikastetxeek egingo dituzte helbide honen bidez:

Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoak:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/irale-2024-2025>

Itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1063807>

Eskabidea *online* ezin baduzu bete, jo ezazu dagokizun Hezkuntza Ordezkaritzara (Euskara Atala)



## Irakastordu barneko ikastaroak

Ikastaro hauek egin daitezke 2024-2025 ikasturtean:

- C1 edo baliokideren batetik gorako ikastaro trinkoak**

Ikastaro-mota	AZALPENA
R300	Euskarazko komunikazio-kompetentzia sendotzeko ikastaroa, irakasle eta hezitzaileentzat
R400	Euskarazko ikasmaterialak sortzen trebatzeko ikastaroa
R600	Curriculumaren euskal dimentsioa irakasarloetan eta ikastetxean lantzeko ikastaroa
R900	Euskarazko ahozko komunikazioa irakasjardunean

(Izena R ikastaro baterako baino gehiagotarako eman ez gero, lehentasun hau ezarriko da: R900 > R600 > R400 > R300)

**Kontuan hartu beharreko informazioa:**

- R300 ikastaroa** eskatzeko, ezinbestekoa izango da galdetegi bat eranstea (Deialdiaren IV. eranskina), komunikazio-gaitasunaren zer eremu hobetu nahi dituzun adierazteko.
- R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion ikastetxeko zuzendariak bete beharreko adierazpena eranstea (deialdiaren V., VI. eta VII. eranskinak). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro hori egiteak ikastetxearen beharrei erantzuten diela, eta bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.
- R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ikastaroetan garatu beharreko proiektuaren egitasmo-txosten labur bat aurkeztu beharko da. Egitasmo-txosten labur horiek prestatu ahal izateko gidak eskuragarri daude Hezkuntza Sailaren webgunean (txostena aurkezteko azken eguna: **ekainaren 7a**).
- Egile-eskubideak.** Ikasketariak proiektua egitean beste egileren batzuen testuak, irudiak eta beste erabiltzeko asmorik badu, berak izango du dagozkion baimenak eskuratzeko ardura. Baimenak eskuratuta izan beharko ditu egitasmo-txostena aurkezten duenerako.

- B2rainoko ikastaro trinkoak**

Ikastaro-mota	AZALPENA
U2	B2 lortzeko urte osoko ikastaroa
3000	B2 lortzeko urte erdiko ikastaroa

- C1erainoko ikastaro trinkoak**

Ikastaro-mota	AZALPENA
U3	C1 lortzeko urte osoko ikastaroa
4000	HLEA lortzeko urte erdiko ikastaroa
5000	C1 lortzeko urte erdiko ikastaroa



## IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROAK NOIZ

Taulak zehazten du ikastaro bakoitza noiz hasten eta noiz amaitzen den:

	U2, U3	3000, 4000 eta 5000	R300	R400	R600	R900
<b>Egutegia</b>	2024/09/09 - 2025/06/06	<b>3000-4000 eta 5000</b> 2025/01/07 - 2025/06/06	<b>1. txanda</b> (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2024/09/09 - 2024/12/20  <b>2. txanda</b> (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2025/01/07 - 2025/04/11	(Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2024/09/09 – 2024/12/20	<b>1. txanda</b> (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2024/09/09 – 2024/12/20  <b>2. txanda</b> (Donostian eta Bilbon) 2025/01/07 – 2025/04/11	(Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2025/01/07 – 2025/04/11
<b>Ordutegia</b>	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu
<b>Zenbat ordu</b>	850 ordu	475 ordu	365 ordu	365 ordu	365 ordu	365 ordu

Ordu-kopuruak gutxi gorabeherakoak dira.

R ikastaroen egutegia eta ordutegia IRALEko irakastegi bakoitzak zehaztuko ditu; ikasketarien ordutegi-egutegiak, beraz, horiexek izango dira, eta ez haien ikastetxeetakoak.

R ikastaroen ikasketariak, IRALEko irakastegian dauden bitartean, ez dute baimenik izango irakastegiko jardunez besteko eginkizunetan parte hartzeko (irakastegiko ordutegiaren barneko bestelako ikastaroetan, ikasketa-bidaietan...).



## Irakastorduz kanpoko ikastaroak

- Ikastaro hauek egin daitezke 2024ko udan:**

C1era arteko ikastaroak

Ikastaro-mota	AZALPENA
AU	B2rainoko ikastaroa
EU	C1erainoko ikastaroa

- Ikastaro hauek egin daitezke 2024-2025 ikasturtean:**

C1etik gorako ikastaroak (ikastetxean bertan eta formazio-orduetan egin daitezkeenak)

Ikastaro-mota	AZALPENA
H4	Ipuingintza eta Kontalaritza.
H5	Euskal kantanak eta jolasak.
H11	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna.
H12	Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako.
I1	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa.
I7	Ahozko hizkuntzaren lanketa.
I8	Hizkuntza Trataera Integrala garatzen.

C1era arteko ikasturteko ikastaroak

Ikastaro-mota	AZALPENA
A	B2rainoko ikastaroa
E	C1erainoko ikastaroa



## HELBIDEAK

### Arabako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: **945 017251**

E-posta: [huisarep3@euskadi.eus](mailto:huisarep3@euskadi.eus)

### Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoak: **944 031 101/944 031 109**

E-posta: [huisb130@euskadi.eus](mailto:huisb130@euskadi.eus)

[huisb074@euskadi.eus](mailto:huisb074@euskadi.eus)

### Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: **943 022 873**

E-posta: [huisg006@euskadi.eus](mailto:huisg006@euskadi.eus)

### Gasteizko IRALE

Telefonoa: **945 274 400**

E-posta: [010146aa@hezkuntza.net](mailto:010146aa@hezkuntza.net)

### Bilboko Dolaretxeko IRALE

Telefonoa: **944 129 646**

E-posta: [014212aa@hezkuntza.net](mailto:014212aa@hezkuntza.net)

### Bilboko Artazugoikoko IRALE

Telefonoa: **944 280 104**

E-posta: [015048aa@hezkuntza.net](mailto:015048aa@hezkuntza.net)

### Donostiako IRALE

Telefonoa: **943 404 610**

E-posta: [012233aa@hezkuntza.net](mailto:012233aa@hezkuntza.net)

### Eibarko IRALE

Telefonoa: **943 120 100**

E-posta: [013360aa@hezkuntza.net](mailto:013360aa@hezkuntza.net)

**Hezkuntza Sailaren webgunea:**  
<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>